

Eguneroko berrikuntza


Sormen eta berrikuntza esperientziak
aholku pertsonalen bitartez



innobasque

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación



Eguneroko berrikuntza

Sormen eta berrikuntza esperientziak aholku
pertsonalen bitartez

innobasque

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación

Argitaratzailea: Innobasque

Innobasque - 2010

Berrikuntzarako Euskal Agentzia

Bizkaiko Teknologia Parkea

Laida Bidea 203, 48170 Zamudio

Lege Gordailua


BI-1767/2010

Erredakzioa

Klap_laboratorio de creación industrial

Argazkiak eta diseinua

RoberFreelance_



Argitalpen honen edukiak, edizio honi dagokionez, lizentzia honen pean argitaratu dira: Reconocimiento-No comercial-Sin obras derivadas 3.0 España de Creative Commons. Informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_CO

Zer da Innobasque?

Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia elkarte pribatua da, irabazi asmorik gabea, eta Euskadin berrikuntza koordinatu eta arlo guztietan sustatzeko sortu zen, baita espiritu ekintzailea eta sortzailea bultzatzeko ere.

Innobasque honakoek osatzen dute: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak; enpresa pribatuak; euskal erakunde publikoak; enpresaburuen ordezkari instituzionalak; euskal langileak eta berrikuntzarekin zerikusia duten era guztietako erakundeak.

Innobasque-ren asmoa da eragile horiei guztiei elkarlanerako plataforma eta sare sendoa eskaintzea, eta horren bidez honakoak gauzatzea:

- ▷ Berrikuntzari dagozkion balioak eta jarrerak sustatzeko jarduerak garatzea euskal gizartean.
- ▷ Kanpora begira, Euskadi berritzaile eta I+G+b gune aurreratuaren irudia zabaltzeko ekintzak egitea.
- ▷ Euskal enpresa eta erakundeetan berrikuntza dinamikak sortzen lagunduko duten lanak garatzea.

Berritzaileen Euskal Komunitatea


Innobasque-n ondo dakigu berrikuntzaren eragile nagusiak pertsonak garela, lan ingurunean ez ezik beste edozein arlotan ere berrikuntza eragiten ari baikara: arlo pertsonalean, familian, gizartean... Berrikuntzaren zirkuituak ez dira itxita geratzen lana amaitzen denean. Innobasque-k babesten duen zeharkako berrikuntza ereduak gaintitu egiten ditu muga faltsuak, eta ondorioz, planteamendu horrek eragina dauka bizitza bezain zabala den balio-katea luze batean, gure zereginaren arlo desberdinak lotzen baititu.

Horregatik, pertsona berritzaileen komunitate bat sortzen ari gara, herritar gisa duten jarrerarekin eta euren barne historiarekin euskal berrikuntza bultzatzen lagundu dezaten. Proiektu berezi hau gune birtualean gauzatzen da, on line plataforma baten bidez. Lanerako eta lankidetzarako gune irekia da, era guztietako pertsonen eta erakundeen arteko elkarreragina bideratzen duena, eta berrikuntza irekia eta sareko lana bultzatzeko helburua du. Gune horrek aukera ematen digu ideiak, kezak, proposamenak, erronkak eta asmoak trukatzeko. Hitz egin, egiaztatu, irudikatu, lantaldeak sortu, ikasi eta irakatsi egin dezakegu. Eraikitzeo aukera ematen digu. Azken finean, gure ezagutzari etekina ateratzeko balio digu. Plataforma gune birtual baten bidez osatzen bada ere, horren jarduera on-line ekintzez eta ekintza presentzialez garatzen da.

Argitalpen hau zenbait protagonistari egindako elkarrizketen laburpena da, eta horren asmoa "gomendio katea" bat osatzea; hartara, ezaugarri berritzaileak dituen pertsona batek gomendioak ematen dizkio beste bati. Ez dago hari gidaririk, ez dago narrariorik; diskurtsoa berbaldi-txatalez osatutako katea da; hor azaltzen dira bakoitzaren esperientziak eta hitza letra xehez sortzen da izaera berritzaileen xehetasun adierazgarri bezala.

Proiektu honen jatorrian intuizio bat dago, hots, gure herritarrek sormenerako eta lankidetzarako ahalmen handia dutela, eta ahalmen horrek aktibatzeo bideak behar dituela, bestela alferrik galduko baita. Beraz, gonbit egiten dizuegu horretaz baliatu zaitezten, parte hartu eta esperientziak, kezak, proiektuak eta ezagutza konpartitu dezazuen. Probetxugarri izan dagizuela!

Hurbilketa kontzeptuala



Zu ere partaide izan zaitezke!

Ekimena: Gomendio-katea

Gizartearen sortzeko ahalmena oinarri hartuta, proiektu bat eraiki nahi dugu, honako helburua izango duena: edozein lekutan bizi diren pertsonen jarrera berritzailea identifikatu, aintzat hartu eta abiaraztea.

Gomendio Katea eraikitzeko prozesu zoragarri honetan ikuspuntu ezberdinak jaso ditugu berrikuntzaren esanahiari buruz; ikusi dugunez, badira zenbait balio komun gure gizartearen "izaera berritzailea" definitzen dutenak.

Proiektuaren Garapena


Gomendioen Katea elkarlanean egindako proiektua da eta gomendioa erabiltzen du gure ustez gizarteari modu berezian ekarpena egiten dioten pertsonak aintzat hartzeko.

Horrela, gomendatutako pertsona batek bere proiektu eta kezken berri ematen du, baita berrikuntzari buruz duen ikuspuntua eta gizartearen aurrean duen konpromisoa ere. Pertsona horrek beste bat gomendatzen du eta, horrela, gomendio katea osatu arte.


Proiektuaren fase honetan 4 kate zabaldu dira eta horietan profil, prestakuntza eta kezka ezberdinetako 20 pertsonari elkarrizketak egin zaizkie... Baina proiektua aurrera doa...

Emaitzak

Pertsona apartak ezagutu eta haien lana aintzat hartzeko aukera izan dugu; horrez gain, esperientzia honek erakutsi digu badirela hainbat gauza hasierako helburuetan ez zeudenak. Ikusi dugunez, elkarrizketa guztietan azaltzen dira zenbait termino, ideia eta ikuspegi, eta horrek pentsarazten digu elkarrizketatu guztiek dituztela zeharkako balio komun batzuk. Hona hemen era horretako balio batzuk: Gertaeren aurrean duten jarrera positiboa; etengabe erronka berrien bila ibiltzea; arriskuak hartu beharra; aurrera egiteko grina; hobekuntzarako bideak etengabe bilatzea; berrikuntzaren abiapuntua "behatzea" dela eta ezinbesteko baldintza "egitea".







Eguneroko berrikuntza



Nyanga Gomendiourrutia



“Enbor bat uretan luzaro egonda ere, ez da sekula krokodilo bihurtuko”

Nyanga Haur Hezkuntzako irakaslea da Berangon. Aurretik 20 urte baino gehiago ibili da Hezkuntza Berezian lanean. Tarteka, komunikabideetan ere egin du lan: Irratian: Radio Euskadi, Radio Correo..., Telebistan: Eitb (Lo que faltaba), Tele 5 (Crónicas Marcianas). Prestakuntza: Irakasle Ikasketak, Medikuntza Ikasketak (4./5. ikasturteak), Kazetaritza Publizitate arloan, Adierazpen eta Komunikazioko Prestakuntza. Dituen proiektu pertsonalen artean honakoak daude: Komunikazioa eta adierazpena, Kultura aniztasuna eta erlijioen arteko elkarriketa eta Artearen bilaketa. Hauek dira dituen zaletasun kutunenak: landareekin harremanetan egotea, zaintzea eta ezagutzea (zuhaitzak, bonsaiak...), eta sukaldaritza. Oso lotuta dago bere paisaiari eta lurrari. Urtero Gabon Postalak egin eta jendeari bidaltzen dizkio, gutxienez 60 postal.

Profila

Ekuatore Ginean erabiltzen den laudoriozko esamolde batetik hartu du bere izena, bertan jaio baitzen. Antimilitarista eta bakezaletzat du bere burua. Bakearen Kulturaren alde eta Gerraren Kulturaren aurka; hori du bere bizitzako "tema" nagusia. Agian hortik dator kio Etikaren kontu hori? Lanean ordenatua eta saiaturia da, baina berak dioenez, bizitzan "kaos apur bat ere behar da, ustekabeak bere lekua izan dezan". Beti egin daitezke gauzak beste era batera. Haurrek bilatzaileak eta ekintzaileak (egiterakoak) izan behar dute beren ikaskuntzan, sormenaren balioa probatu eta euren buruan konfiantza izan dezaten. Eta helduek gauza bera. Bere kezak lanean txertatzen saiatzen da, bestela "hilda daude".

Kezkak

*“Ezezko ireki eta eraikitzailea esateko gai izatea”
“Inguru aldakorretan erantzun eraginkorrek emateko gaitasuna”*

Zer da berrikuntza zuretzat?

*“Kontua da hurbileko gauzak hobetzea”
“Gai izatea, atek irekitzea eta irekita uztea”*

Konpromisoa

Profila

Natalia Lehen Hezkuntzako irakaslea da, eta Juan Iberdrolako Komunikazio sailean ari da lanean. Noizean behin, senide eta laguntzako ekitaldiak antolatzen dituzte horien komunikaziotik kudeaketaraino. Nataliak Irakasle-ikasketak egin zituen, eta Juaneke, Enpresa Zientziak. Familia osoak, talde gisa, egunean tarte bat erabiltzen du beren proiektuak garatzeko eta beren irudimena agertzeko. Beren etxean sortu, ekoitzi eta biltzen da. Darling Factory bat da. Modu altruistan egiten dute.

Kezkak

Eguneroko kezkei, familiakoei, hezkuntzakoei, osasunekoei, ... beren ikuspuntutik egiten diete aurre. Bidaiatzen dutenean, paperak, euskarriak eta inspirazioa bilatzen dute lan-oinarriak izateko eta aberasteko. Familiaren edo lagunaren edozein gertakari komunikatu eta modu berezian bizi beharreko ekitaldia bilakatzen dute. Egiten duten guztia pertsonalizatzea, bere egitea, gustatzen zaie. Beren bizitza alai eta dibertigarria izatea nahi dute. Beren alabak dira Darling-en azken inkorporazioak, sormenaren eta ekoizpenaren ikuspuntutik. Offline komunikaziorako benetako sarea mantentzen dute beren lagunekin. Eta parte hartzen duten edozein gauzatan, beharrezko lankidetzeta eta laguntza eskatzen diete beste pertsonari.

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Jarrera horrek esan nahi du aukera guztiei irekita zaudela, erronka guztiei jarrera sortzailez aurre egiteko, ez bakarrik gauza berriak egiteko; izan ere, askotan beharrezkoa da itzultzea edo alde batetik bestera aldatzea besterik ez, ...”
“Beste modu bat bizitza ikusteko, ohituretatik desbideratzen den guztia, arauak, ...”

Konpromisoa

“Bizitza dibertigarriago egin”

*“Negozio bilakatuko bagenu,
ez liguke asebeteko”*

Natalia Barcena
Juan Bores





Francisco Doñate



“Dena da emozio hutsa”

Euskal Herriko Unibertsitatean klaseak ematen aritu da Medikuntzako Katedradun gisa, pasio eta ilusio handiz, azken 30 urteetan. Bere denbora librean, arkitekturaren munduan barneratzea gustatzen zaio. Filosofiako lizentzia, Medikuntzako eta Zuzenbideko karrera ere hartzen ditu barne bere prestakuntza akademikoak. Pertsona geldiezina eta ikusmin handikoa da.

Profila

Azken hogeita bost urteotan bizi izan den etxea eraiki zuen, eta orain bere erretirokoa egiten ari da. Unibertsitatean jarduten du, irakasten eta ikertzen. Bere kezkek bere lanpostuan bideratzen ditu, eta hemen, lan egin, hausnartu, eta bere burua prestatzen du. Medicus Mundi GKEn fudatzaileetako bat da, eta modu aktiboan hartzen du parte. Gainera, Amnistia Internazionaleko kidea da. "Bizitzaren basoa" proiektuaren buru izan da (gorputz-emaleen omenezko hilobi-monumentua, bakarra eta munduko garrantzitsuen arte modernoan), kanpoan ezagunagoa da... Bere asmo da "zizareei ez ezik zientziari ematea lehentasuna"; kontzeptua honakoa litzateke: "Heriotza da bere biziaren arrazoia". Emaileak kontuan hartuta, aberatsak gara hemen (munduan lehenak). Gorpu bat ez da saltzen. Unibertsitatek aberatsenak ez dituzte, eta ezin dituzte erosi. Erreferentzia gara, eta hainbat tokitatik datoz horien bila, Suediatik, Italiatik, ... Emaileen kultura sortzen has izen, eta gaur egun erreferentzia gara.

Kezkak

"Geldirik ez egotea eta bila ibiltzea da"
"Akatsak egitea, asko ikasteko ezinbestekoak diren akatsak"
"Ikertzea, esperimentazio eta azterlanaren bidez"

Zer da berrikuntza zuretzat?

"apustua egiten jarraitzea"

Konpromisoa

Dionisio Horrillo



“Fruta mintzo zait”

Dioni Fruta-dendan egiten du lan, duela 25 urte sortu zuen enpresan. Noizean behin, elikadura osasuntsuaren onurak zabaltzen ditu, jendearen bizitza hobetzeko. Motorrak gustuko ditu. Prestakuntza: Lanbide Heziketa Mekanikoa. Bere helburu nagusia da lana berdina izatetik egunero gozatzerara igarotzea. Izan ere, bere ustetan, ekonomikoak ez diren beste balore batzuk bultzatu behar dira enpresetan.

Profila

Bere fruta-dendan, beharrezko estimulua lortzea, eta jendeak motibatuta lan egitea. Konfiantza eta konpromisoa funtsezkoak dira. Pentsatzea gustatzen zaio, gauzak egitea, proposatzea, ikertzea. Harro dago fruta-saltzaile izateaz, eta estimu handitan du fruta. Beste kezka bat: Pailazo ikastaroak egitea eta egunerokoari umorea ematea. Enpresaren barruan komunikazio saila dauka, eta horri esker, bere esperientziak partekatzen ditu besteekin. Argi dauka bateratze-lana ona dela sektore osorako, eta bere jarduera kontuan hartuta, gizarte osorako.

Kezkak

*“Egin, grinaz jardun eta ekarpenak egin”
“Aldatuz joan nork bere buruari galderak eginez”*

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Jendearen bizitza hobetzea gauza berriekin”

Konpromisoa

Profila

Bere egungo zeregina da prestakuntza, musika eta zainketen (Musikoterapia) arteko fusioa, profesional independente gisa. Aditua eta Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunaren arloan. ATEAko kidea da (Animaliekiko Tratu Etikoaren Aldeko Elkartea), eta bere denbora librearen zati bat hegaztiak behatzen ematen du. Prestakuntza: Musika, Turismoa eta Musikoterapia. Nafarroan duen etxe bat eraberritu du bileretarako, jaietarako, ikastaroetarako... topaleku baten modukoa.

Kezkak

Hogeita hiru urterekin Ekuadorrera joan zen. Bertan hiru urte eman zituen, eta oinarrizkoenetik txinpartak ateratzen ikasi zuen, denetarik pixka bat eginez. Esperientzia honek bizitzaren pertzepzioa aldatu zion. Garenak bat taldeko kidea da. Hilero batzartzen dira mota guztietako gai ei buruz eztabaidatzeko, inguruan dutenaren gainean hausnartzeko helburuarekin. Bere ustez, lankidetz a oinarrizkoa da bai norberaren bai lanaren ikuspuntutik.

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Munduan kokatzeko mod u bat da, datorrena mod u irekian bizi, estereotipo zaharrei lotuta egon beharrik gabe”

Konpromisoa

“Gustatzen zaidanetik bizitzea lortu dut”

Idoia Lekue



“Ornitologia da animalienganako dudak zaletasun eta jakinguraren arteko uztarketarik onena”

Joyce Elorriaga

“Ez nabil formulen bila”



Arkitektura Estudio batean egiten du lan (eraikuntzak eta urbanizazioa) Noizbehin, zeramikako piezak egiten ditu. Bere aitak tornu bat egin zion garbigailuko motor batekin. Prestakuntza: Arkitektura. Bere eguneroko bizitzan, ordutegi malguak eta familiarekin bateragarriak bilatzen ditu. Tai-Chi egiten du.

Profila

Bere seme-alabekin egunero dituen harremanetan, gauzak azaltzen saiatzen da eta burutik pasatzen zaien guztia martxan jar dezatela bultzatzen du. Bere kezkek bideratzen ditu bere familiarekin partekatuta. Bere lanean, proiektu bakoitzari erronka barri bat bezala aurre egitea gustatzen zaio. Sektorearen barruan gehiago laguntzea gustatuko litzaioke, horren falta sumatzen du, aurrera egiteko etorkizuna da.

Kezkak

*“Lortu duzuna eta behar duzuna kontuan hartuta, pausu berri bat ematea”...lerratu beharrean, ... gelditu, berriro pentsatu, erabaki eta gozatu daukazuna erabiliz”
“Jakingura izan eta adi egon”*

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Aurrean jartzen zaizkidan erronkak bideratzen saiatzen naiz”

Konpromisoa

Profila

Ambrosia Pitigüil enpresaren sortzaileak dira, eta moda osagarriak diseinatu eta proiektua kudeatzen dute. Prestakuntza: Beak Artearen Historia eta diseinu grafikoa ikasi du. Susanak, Administrazioa, norberaren prestakuntza. Beren negozioaren zale amorratuak dira. Beren bizitza pertsonalarekin bateratzen saiatzen dira. Ideia pare bati buelta eta buelta dabilta proiektu berri bat sortzeko.

Kezkak

Gazteek egiten dutena arretaz ikusten dute eta haiekin konexioa bilatzen dute egiten duten gauza guztietan. Beren lanean egunero porrotak sufritu eta arrakastak gozaten dituzte. Gure lana da gure kezka. Zerbait ez dakigunean, gure ustez dakienari deitzen diogu, edonor dela ere. Beste talde batzuekin egin dute lan, baina beren ustetan, helburuak eta estrategia bateratua izan behar dute denek irabaz dezaten. Nolanahi ere, oso aberasgarria dela uste dute.

“Gure esentzia, konbinazio eta koloreekin fidelak izatea. Osagarria dena bihurtzen da, osagarria izateari uzten dio, lehenengo poltsa aukeratu eta gero janzen zara”

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Ekarpenen bat egiten duzun aldaketa”

“Jadanik existitzen dena berriz interpretatzea”

“Atzera bueltatzea”

Konpromisoa

“Balio dugula sinesten dugu; harro samarra ematen badu ere, hori da nahi dugun lekura iristeko daukagun formula”



Bea y Susana Vaciero



“Gure zaletasuna eta kezka bat bera dira”

Profila

Gaur egun erretiratuta dago eta lkasten elkarteko kide fundatzailea da. Bere tarte libreetan, pianoa jotzen ikasi eta historiako ezagutzak lortzen ari da. Prestakuntza: Graduatua, Marketina, Teologia, Filosofia eta Soziologia. Esperientzia profesional berriak ezartzen lagundu du, enpresa komunitarioak sortuz: Juan XXIII kooperatiba, Eroski,...

Kezkak


Bere ustez egunerokoa etengabeko erronka da. Prestakuntza etengabearen alde egiten du interes handiarekin, eta horregatik, defendatzen du enpresetan pertsona nagusiek asko lagundu ahal dutela. Era berean, zuhaitzak ikusteko txangoak antolatzen parte hartzen du.

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Gauzak hobetu daitezkeela pentsatzeko prest egotea, jarrera bat da”

Konpromisoa

“Nire esperientzia helarazten saiatzen naiz, hasten ari direnentzat erabilgarria izateko”

A photograph of an elderly man with glasses, Félix Arroita Jauregui, sitting in a wooden structure. He is wearing a dark sweater and light-colored trousers. He is holding a small object in his hands. The background consists of horizontal wooden planks. The lighting is dramatic, with strong shadows.

Félix Arroitajauregui

“Egunerokoa da erronka”

“Baliabiderik ezak adimena zorrozten du”

Manuel Iraolagoitia



Gaur egun erretiroan dago eta Ikasten-ikasleen Elkarteko kide fundatzailea da Debarreneko esperientzia eskolan. Noizean behin, zuhaitzak aztertzen ematen du denbora. Armagintza eta Ingeniaritza ikasi zuen Eibarren eta Suitzara joan zen ikasten jarraitzeko. Eguneroko hobetu nahi du etengabeko prestakuntzarekin eta Ikasten elkarterako proiektuak sortuz.

Profila

Bere kezkak bideratzen ditu: Ikasiz gehiago jakiteko eta ideiak errealitate bihurtzen lagunduz. Bere iritziak, berrikuntza partekatua, irekia eta gardena izan behar da. Pertsona bat berritzailea izan daiteke, baina bere ideiak sozializatu beharrez ez baditu partekatzen, beti txarragoak izango dira. Bere ustez, emakumeen ekarpen profesionalak beste mundu batean sartzea dakar. Aitortzen du oso planteamendu positiboa izan zela Eibarreko enpresek gerraren ostean egin zutena: gauza txikietan balore handia jarri.

Kezkak

“Lortzen den jarrera da, eta giroa, ingurukoa eta ikusten duzuna oso garrantzitsua da”

“Datorrena eta begi aurrean duzuna baino pausu bat aurrerago joatea”

“Arriskuak norbere gainean hartzea da, ideia baten aldeko apustua egitea”

“Zerbait txarto atera arren, ez du zertan beti horrela izan behar”

“Porrotetik ikasi eta norberaren autokritika egitea, hobetzeko bideak dira”

Zer da berrikuntza zuretzat?

“nire aurretik pasatzen diren ideia berri guztiak sustatu”

Konpromisoa

Profila

Garuna eta zelulak ikertzen ditu Neurotek-en (Unibertsitateko ikerketa laborategia). Bere tarte libreak musikan, artean eta berrikuntza adierazten duten eremuetan ematen ditu. Prestakuntza: Neurologia (Espainia -Suitza -AEB).. Bere proiektu pertsonala da Neurodegenerazioa aztertzea, Neurobiologiatik. Ezezagunaren abentura bokaziozkoa da; ez dio beldurrik aztertu gabekoari. Ikertzaile moduan, espezie arrarotzat jotzen du bere burua, eta lan egiten du gehiago lan egiteko.

Kezkak

Patenteak sortzen eta argitaratzen saiatzen da. Horretan ematen du denbora. Hipotesiak eta horien translazio-baloreak aztertzen ditu, ezagutza funtzional eta aplikatuko irizpideekin. Porrotaren onarpena bere jardueraren zati bat da, baita bere arrakastaren oinarria ere. Galdera bati erantzuten saiatzen denean, beste hamar sortzen zaizkio, eta horrela amaigabe. Dena ez dago eginda, kontrakoa dirudien arren. Deskubritu eta egiaztatu behar da. Ikertzailearen drama ekonomia arloko kontserbadorismoa da. Askatasuna eta sormena dagoen ohituran datza bere lana. Ikerketa gogo-betegarria da, plazer intelektuala ematen dio, ezezagunarekin borroka mentala da. Mugitzen den ingurua horren konplexua denez, lankidetzat beharrezkoa da, hori gabe jarduera ulertezina da.

Zer da berrikuntza zuretzat?

*“Aurreiritziak kentzea eskatzen du”
 “Ezagutza sortu eta sektore ekonomikora eraman”
 “Aktiboa den unetik bertatik balioa sortzen ari da, ezagutza”
 “Ikerkuntza izugarria da, ideiak ebaztea alegia; horiek gabe, ez dago ezer”*


Konpromisoa

*“Ikaskuntzaren bidez berritzea”
 “Pertsonak balioa direla sinestaraztea”
 “Ezagutzaren sorkuntza baloratzea”
 “Unibertsitatea jartzea benetan merezi duen tokian. Ezin dugu Herialde indartsu bat egin maila handiko Unibertsitatek gabe. Horixe da etorkizunerako erronka handia”*

Carlos Matute



*“Ezezagunaren abenturak
segurtasuna ematen dizu”*

A man with short dark hair, wearing a dark blue jacket and blue jeans, is sitting in a black modern-style chair on a wooden deck at night. He is leaning back with his legs crossed, looking towards the camera with a slight smile. The background consists of a wall made of horizontal wooden slats, illuminated from below, creating a warm glow. To the right, there are some potted plants and a small light source. The overall atmosphere is relaxed and intimate.

David Tazueco

“Zikloi batek aldatu zuen nire bizitza”

DT Creativos enpresan ari da lanean, eta orain dela zortzi urte fundatu zuen. Noizean behin, hibridatzeko objektuak bilatzen ematen du denbora. Prestakuntza: U.S. Unibertsitatean (University of the Street) graduatua, Lanbide Heziketa eta bere esperientzia pertsonala. (University of the Street) graduatua, Lanbide Heziketa eta bere esperientzia pertsonala. Egunero egiten du borroka bere enpresa, bere erronka profesionala, aurrera eramateko. Bere ustez, proba-errorea da ikasteko modurik onena.

Profila

Arau bezala, lehen bihozkada da balio duena, erratzen bada ere, horrek eramaten du aurrera. Unea bizi du, minutu bakoitza. Erronka berriak planteatzen badizkiozu onartzen ditu, dena dela ere. Lehenengoa praktika da eta gero teoria. Bere tarte libreetan gehiago ikasten du eta horrek motibatzen du. Berregiten ez bada, gelditzen da. Bere lema da aurrera egiteko oinarrizkoa dela fusioa, nahasketa, hibridazioa,...

Kezkak

*“Urteko egun guztietan ogi-puska lortu beharra”
 “Ez gelditu, ezinegona da existitzen diren gauzak
 hobetzeraz eramango zaituena”
 “Berrikuntza egunero saldu beharreko zerbait da, praktikaren bidez”
 “Berrikuntza ez doa teknologiarekin bakarrik”*

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Egunero neure buruari azterketa egin”

Konpromisoa



Eugenio Tamayo

“Krisiek bero-bero jartzen naute”



Donostiako Tamayo Liburu dendetako 3. belaunaldikoa da; semeak familia-negoziolari jarraitzen dio. Artezale, kulturazale eta mendizale izateak gauza asko erakutsi diote. Negoziaren gidaritza hartu behar izan zuenean, oso baliagarri izan zitzaion enpresa zientzietako prestakuntza izatea.

Profila

“Krisi garaian hazi nintzen”; horrek asko irakatsi dio eta ez du ahaztu nahi. Sustatzen ari den ekimenaren bidez, hots, “Dena Arterako, Artea denerako”, berarentzat eta gizartearentzat funtsezko diren hainbat alderdi garatu nahi ditu. “Irudimena mimatzen saiatzen naiz bizitzaren ilusionista baten moduan, jendeak ondo pasatu dezan”. “Pena ez da saltzaile ona”. Nire ustez, funtsezkoa da sentiberatasuna, ingurumena eta iraunkortasuna sustatzea, eta “Natura sentitzen jakitea”. Sinetsita dago espezializazioa balio erantsi sendoa dela.

Kezkak

“Ideiak izan eta praktikara eramateko gaitasuna da eta, horretarako, kalean egon beharra dago”
“Krisialdiak hazteko eta hobetzeko aukera dira”
“Sortzeko eta berritzeko ezinbestekoa da ilusioa”
“Gelditu, hausnartu eta erreakzionatu”

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Eskuordetzea, eta horri dagokion guztiaz arduratzea”
“Jendearen alde positiboa irakurtzea”
“Lantaldearen eta erantzukizun sozial korporatiboaren hurbiltasuna sustatzea”
“Erreferentzia ez galtzea, izan garenaz jakitun egotea”

Konpromisoa

Profila

Ergoien Esnekien fundatzailea da. Bertan, ahuntz-esneaz egindako produktu fresko ekologikoak elaboratzen dituzte. Ia baserri guztietan ahuntz bat zegoen esnearen etxeko kontsumorako. Prestakuntza: Orokorra eta bere jarduera profesionalari dagokiona. Bere denbora ematen du elikagaiak aztertzen, sustatzen eta zaintzen, erronka pertsonal moduan.

Kezkak

Bere kezka nagusia da elikadurari behar duen garrantzia ematea, zer jaten dugun jakinda eta herri-jakintzaren oinarrizkoa berreskuratuz. Bere ustez, ekoizpen ekologikoa arrunta izan beharko luke. Txikitatik kezkatu da elikaduragatik, dena usaintzen zuen... "bere indar guztiekin" defendatzen du lehen sektorea etorkizuna dela. Ekoizle Ekologikoen Elkartearekin lankidetzan aritzen da.

Zer da berrikuntza zuretzat?

"Zerbait izugarria"
"Jarraikakoa, mugimenduan dagoen zerbait"
"Mugitzen egotera zaramatzan ezinegona"
"Bereizketa krisietatik aparte dago"
"Sistema aldatzea"

Konpromisoa

"Ondo elikatzearen aldeko pasioa"

Eider Rodríguez



“Lehen sektorea da etorkizuna”

Profila

Automoziorako abiarazte koroen soldatzaile ari da, eta gainera, musikagilea da. Prestakuntza: Orokorra eta bere jarduera profesionalekoa. Harentzat familia eta musika oso garrantzitsuak dira. Nahiz eta baliabide gutxi egon, ilusioak aurrera bultzatzen du.

Kezkak

Askotan baliabide gutxi daudenez, ezin duzu gustura lan egin. Asmarena behar du arreta jartzeko. Batzuetan sarean egiten du lan musikariekin musika sortuz. Halaber, hemen dagoen Senegaleko jendearekin aritzen da elkarlanean. Nahiz eta haiek Wolof-en rapeatzen duten, eta jarraitzen ez dituen, ondo ulertzen dute elkar eta asko gozatzen dute elkarrekin lanean.

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Berrikuntza kontzeptua niretzat, une honetan, atzera itzultzea da. Gauza berriak egiten ari naiz orain dela 10 urte erabiltzen nituen aparatuekin eta funtzioekin”


Konpromisoa

“Konpromiso handia hartu dut beste herrialdeetako musikariekin, eta haiekin aritzen naiz elkarlanean. Horrek erakusten du gauzak beste era batera egin daitezkeela, eta horrek motibatzen nau”
“Ez da diru askorik behar gauzak egiteko, egiteko gogoia eduki behar da”



Arkaitz Cayado

“Aurrera jarraitzeko atzera begiratu behar izan nuen”



“Milagarren berrargiztatzean nago”

Santi Badiola



ONN Outside-ko Kudeatzaile gisa ari da lanean. Erronka berriei heltzea eta ideia desberdinekin berriro hastea gustatzen zaio. Sektoreko hainbat enpresatatik igaro da, horien artean, AKABA. Prestakuntza: Orokorra eta enpresa mundukoa.

Profila

*“Diseinuaren diziplina aurkitu nuenean, orain dela 30 urte baino gehiago, bere metodoetatik liluratuta geratu nintzen”
 “Hasieran gustatu ez arren, Tizio lanpararekin pozoia sentitu nuen” “Une errentagarrienean utzi nuen nire negozioa, ilusioz beteriko erronka pertsonal bati ekiteko”
 “Negozioa planteatzen dut proiektua osatzen dugun jende guztia elkarlanean aritzen den erakunde bezala, kanpokoak, barrukoak, banaketa sarea, ...”*


Kezkak

*“Jarrera bat da”
 “Bizitzan, gizartean eta enpresari gisa duzun izaera eta portaera”
 “Egiten dituzun gauzetan irizpidez jokatzeta da benetako berrikuntza” “Berrikuntza arriskua da”*

Zer da berrikuntza zuretzat?

“Gauzak irizpidez egiteko balorea defendatzeko pasioa”

Konpromisoa



Gogoetak



“porrotetik ikastea, autokritika egitea hobetzeko modu bat da”

**“Ikerketaren abiapuntua askatasuna
eta sormena duen errutina da”**

*“Egiten dituzun gauzetan irizpidez jokatzea
da benetako berrikuntza”*

**“muturreko egoerek eta baliabiderik
ezak adimena zorrozten dute”**

“Gaitasuna izan eta ateak ireki”

**“Ahaleginak egiten ditut bururatzen zaien
guztia martxan jarri dezaten”**

“Ez dago dena eginda, hala ematen badu ere”

**“... gauzak bere kabuz joaten utzi beharrean,
gelditu, berriz pentsatu, erabaki eta esku
artean daukazuarekin gozatu”**

“Jakingura izan eta adi egon”

**“Gauzak hobetu daitezkeela pentsatzeko
prest egotea jarrera bat da”**

“Egunero gertatzen dira porrotak eta arrakastak”

“Datorrenari eta ikusten duzunari aurrea hartzea da”

*“Nire lan-orduak utzi, familiari eta, ondorioz,
neure buruari eskaintzeko”*

“Atzera itzuli”

“Bizitza dibertigarriagoa egin”

**“Ez dakigunean ustez dakienari deitzen diogu, berdin
zaigu nori, “Ezetz” badaukagu lehendik ere”**

“Motibazioa lortu eta lanean jendea motibatuta egon dadila”

**“nire aurretik pasatzen diren
ideia berri guztiak sustatu”**

*“Gauza berrietan pentsatu ahal izateko,
egoista samarra izan behar da”*

**“Gustuko duzun zerbait egiten baduzu,
bizimodua atera eta gozatu egingo duzu”**

“Aisialdia eta lana uztartzea da gakoa”

**“Jendearen bizitza hobetu,
egoista samarra izanik”**

“Gure negozioa da gure kezka”

**“... lana amaitzen dugunean, gaez, burua beste bide
batzuetatik joaten zaigu, horixe da gure grina...”**

“Egunero tarte bat hartu gure kezka bideratu eta irudimena mamitzeko, talde bat gara...”

“Suspertzen ez banaiz, gelditu egiten naiz”

“Gurean ekoitzi, bildu eta sortu egiten da... eta denok gara partaide”

“Ezagutza irizpideak sortu (funtzionala eta aplikatua)”

“Hilean behin, lagun talde bat elkartzeko gara hainbat gairi buruz jarduteko, inguruan daukagunari buruz gogoeta egiteko”

“Urteko egun guztietan ogi-puska lortu beharra”

“Bizitzari begiratzeko modu desberdin bat, ohituretatik eta arauetatik aparte dagoen hori guztia...”

“Hanka-sartzearen proba da ikasteko eta aurrera egiteko modurik onena”

“Jarrera horrek esan nahi du aukera guztiei irekita zaudela, erronka guztiei jarrera sortzailez aurre egiteko”

“Geldiezina eta jakingura handikoa naiz”

“Sektore ezberdinetan lan egin izanak asko erakutsi dit erronkei aurre egin eta konponbidea bilatzeko orduan”

“Hanka-sartzeak egitea funtsezkoa da asko ikasteko”

“Esperimentatzea eta ikastea zer den aztertzea da”

**“Gustatzen zaizuna egitea da behinena,
horretan sinetsi eta grinatzea, aurreko biak
betez gero, berez etorriko baita”**

*“Enbor bat uretan luzaro egonda ere, ez
da sekula krokodilo bihurtuko”*

**“Apur bat denetarik egin behar izateak
bizitza ulertzeko modua aldarazi zidan”**

“Bereizketa krisietatik aparte dago”

**“Munduan kokatzeko modu bat da, datorrena
bizi modu irekian, estereotipo zaharrei
besterik gabe lotuta egon gabe”**

“Gustatzen zaidanetik bizitza lortu dut”

“Egunero ikasi”

*“Ez da diru askorik behar gauzak egiteko,
egiteko gogoia eduki behar da”*

“konpromisoa, esperientziak eta ideiak lotuta”

*“Ez gelditzea, lehendik dauden gauzak
hobetzea eragiten dizun kezka”*

“Gauzak egiteko grina behar da”

“Arriskuak hartzea da, ideia baten alde egitea”

**“zerbait oker irteteak ez du esan nahi
beti horrela izango denik”**

“Proiektuak sortzeko pizgarriak eman”

**“Hurbileko gauzak hobetzea da garrantzitsuena,
hondar-ale txiki bat ipintzea”**

*“berrikuntzak konpartitua, irekia eta gardena
izan behar du; pertsona bat berritzailea izan
daiteke, baina bere ideiak konpartitzen ez baditu,
sozializatutakoak baino okerragoak izango dira beti”*

**“Ez nabil formulen bila, aurrean jartzen zaizkidan
erronkak bideratzen saiatzen naiz”**

“Adineko pertsonak ekarpen asko egin dezakete enpresetan”

**“Grinaz bizi dugu gure negozioa, oraingoz bizitza
pertsonalarekin bateragarri egiten saiatzen gara”**

“... proiektu bakoitzari erronka berri bati bezala heltzen diot...”

“Aldaketan ekarpena egiten duzu”

*“Erronka egiten didate eta, nola edo hala, erantzun
egiten diot, lehenengo praktika eta gero teoria”*

“Geldirik ez egoteko kezka”

“Lehendik badena berriz interpretatzea”

“Gauzak ikusi, proposatu eta egin”

“Gure esentziari leial izan”

“Esperimentazio alderdi sendo bat”

“Ordena bai, baina kaosa ere bai”

“Minutu bakoitza bizi dut”

*“Autonomo batek gehigarrizko motorra dauka
eta hori aprobeixatu egin behar da”*

**“Ez bakarrik gauza berriak egiteko; izan ere,
sarritan buelta eman behar izaten da edo,
besterik gabe, ezkerretik eskuinera aldatu...”**

*“Lehen bulkada da balio duena, nahiz eta hanka
sartu, horrek aurrera eramango zaitu”*

“Berrikuntza egunero saldu behar da, praktikan jarritz”

*“Libre daukadan tarteetan ikasi egiten dut
eta horrek motibatu egiten nau”*

**“Aurrera egiteko, funtsezkoa da bat-
egitea, nahastea, hibridatzea,...”**

“Etenik gabeko zerbait, mugitzen den zerbait”

“Hasieran bitarteko gutxi eta ezagutza gutxi izaten da, baina ilusioak aurrera eramaten zaitu”

“Lortzen den jarrera da, eta giroa, ingurukoa eta ikusten duzuna oso garrantzitsua da”

“Sistema aldatu”

“Animaliak gehiago behatu beharko genituzke”

“Milagarren berraragiztatzean nago”

“Jarrera bat da”

“Bizitzan, gizartean eta enpresari gisa duzun izaera eta portaera”

“Geldirik ez egotea eta bila ibiltzea da”

“Berrikuntza arriskua da”

“Hanka-sartzearen proba, porrotaren ideia erlatiboa da, bidean balioa sortzen baita”

“Ezezagunaren abenturak segurtasuna ematen dizu”

“Ezezagunari diogun beldurra kendu”

“... horrek ematen digun poza ez litzateke berdin izango negozio bihurtuko bagenu”

*“Porrotak esan nahi du jarduera dagoela,
iluntasuna normala da...”*

**“Galdera bati erantzun eta beste 10
sortzen dira, infinitua da”**

“Emozio hutsa izan zen dena”

“Aurkitu eta egiaztatu”

“Ezagutza sortu eta sektore ekonomikora eraman”

**“Jardunean zaudenetik balioa sortzen
ari zara, ezagutza sortzen”**

*“Ikerketan dago gakoa, ideiei irtenbidea
ematean, hori gabe ez dago ezer”*

“Beste era batera egin daitezke gauzak”

*“Ikerketa pozgarria da, atsegin intelektuala ematen dizu,
ezagutzen ez duzunarekiko borroka mentala da”*

**“Gu gabiltzan arloak hain dira konplexuak
non elkarlana beharrezkoa baita, hori gabe
pentsaezina da halako jarduera”**

“Pertsonak balioa dira”

“Egin, grinaz jardun eta ekarpenak egin”

“Hauxe da helburu nagusia: lan egitea eta gozatzea berdin izatea”

“Konfiantza eta konpromisoa funtsezkoak dira”

“Sarritan bitartekoek lana galarazten digute; zentratu eta ekin beharra dago, eboluzionatu nahi badugu”

“Gaur egun, niretzat, berrikuntzaren kontzeptua atzera itzultzea da, gauza berriak egitea duela 10 urte erabiltzen nituen tresna eta funtzioekin”

“Beti izan da horrela: baliabide gutxi eta burua argi”

“Konpromiso handia hartu dut beste herrialdeetako musikariekkin, eta haiekin aritzen naiz elkarlanean. Horrek erakusten du gauzak beste era batera egin daitezkeela, eta horrek motibatzen nau”

“Nire lana da nire egunerokoa”

“Aldatuz joan nork bere buruari galderak eginez”

“Lan bat utzi eta esperientzia berri bati ekiten diodanean, erronka da egunerokoa, apustu pertsonalak”

”Arraro ikusten dut neure burua, egiten eta pentsatzen joatea gustatzen zait...”

